

17/12

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoan adimen ezintasuna duen biztanleriaren aho eta hortz osasunari buruzko arretaren gaineko

Dekretu-proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea



*i*rizpena 17/12

I.- AURREKARIAK

2012ko uztailaren 10ean Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordean Osasun eta Kontsumo Sailaren idazki bat sartu zen. Idazki horretan, *Euskal Autonomia Erkidegoan adimen ezintasuna duen biztanleriaren aho eta hortz osasunari buruzko arretaren gaineko dekretu-proiektuari* buruzko txostena eskatu zuen, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Adimen ezintasuna duten pertsonen aho eta hortz osasunerako arreta egokia jasotzeko duten eskubidea bermatzea da dekretu-proiektu honen helburua. Gainera, kolektibo honek aho eta hortz osasuneko prestazioa eskuratzeko eta berariaz estaltzeko baldintzak arautzen dira bertan. Dekretu-proiektu hau Eusko Legebiltzarraren Osasun Batzordearen 2011ko martxoko erabakiaren ondorioz egin da, erabaki hura prestazioa estaltzearen aldekoa baitzen.

Uztailaren 10ean dokumentuaren kopia igorri zitzaion Kontseiluko osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta beraien berri eman zitzaion lan batzorde egokiari, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen Araudian ezarritakoaren arabera.

2012ko irailaren 3an, Ekonomia Garapenerako Batzordeak lan-saioa egin zuen, irizpenaren aurreproiekturako proposamena eztabaidatzeko. Irizpen-proiektu hau erabaki zuen, eta Euskal EGABen osoko bilkurari aurkeztu zitzaion 2012ko irailaren 21ean. Bertan aho batez onetsi zen.

II.-EDUKIA

Kontsultatu den dekretu-proiektuak hitzaurrea, zazpi artikulua, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen dauzka.

HITZAURREA

Dekretu-proiektuaren hitzaurrean, EAEn zenbait kolektibok jasotzen duten aho eta hortzetako osasun arreta motak deskribatzen dira. Kolektibo horiek 7 eta 15 urte arteko umeak, beharrian bereziak dituztenak barne, Umeentzako

Hortzetako Arreta Programaren eremuan (UHLP), helduak oro har, eta adimen ezinduen beharrianak dira.

Zehatz-mehatz azaltzen dira adimen ezinduen kolektiboaren aho eta hortz arazo bereziak, eta izan ohi duten aho-patologia maila handia. Gainera, Osasun eta Kontsumo Sail honek Eusko Legebiltzarraren aurrean hartutako konpromisoa aipatzen da, adimen ezintasuna duten pertsoneri (adina kontuan izan gabe) ahoko eta hortzetako arreta bermatzeko. Arreta hori nahi du dekretu-proiektu honek, hain zuzen ere, ezarri eta arautu.

XEDAPEN GORPUTZA

17/12j

- 1. artikulua** dekretuaren xedea finkatzen du. Hau da, adimen ezintasuna duten pertsonen aho eta hortz osasunean arreta egokia jasotzeko duten eskubidea bermatzea, eta arreta horren prestazioa eta jasotzeko baldintzak arautzea eta laguntza bermatzea, osasun sistema publikoaren laguntza-baliabideen bitartez
- 2. artikulua** prestazioaren aplikazio eremua finkatzen du: 15 urtetik gorakoak, %33tik gorako ezintasun frogatua dutenak eta EAEn bizi direnak.
- 3. artikulua** dekretua aplikatu behar zaion biztanleriaren minusbalio motak zehazten ditu: %33tik gorako adimen ezintasuna, garun paralisi mistoak, eta garun paralisi diplejikoa eta kuadruplejikoa.
- 4. artikulua** azaltzen du dekretuak barnean hartzen duen eremuan dauden pertsonen erreferentziazko odontologo bat edukiko dutela, Osakidetzakoa, eta eskaintzen diren prestazioak (oinarrizko eta kalitatezko hortz laguntza mantentzera bideratuak) zehazten ditu.
- 5. artikulua** estalitako prestazioetatik baztertzen ditu ortodontziako tratamendu estetikoak eta ortodontziako tratamendua ekar lezaketen guztiak.
- 6. artikulua** ezindutako biztanleriari bermatutako estaldurak emateko aurreikusten den laguntzazko dispositiboa finkatzen du.

7. artikulua azaltzen da Osasun eta Kontsumo Sailak nola ebaluatu eta jarraitu behar dituen dekretuaren neurrien emaitzak.

Xedapen iragankorrak estaldura mailakatua zehazten du, prestazio berrirako gaur egun dagoen eskaerako poltsari erantzuteko ezarria.

Lehenengo azken xedapenak Osasun eta Kontsumo sailburuari ahalmena ematen dio dekretu hau betearazteko xedapen gokiak eman ditzan.

Bigarren azken xedapenak azaltzen du dekretua EAEn argitaratu ondoko egunean sartuko dela indarrean.

17/12 

III.- GOGOETA OROKORRAK

Euskal EGABi kontsultatu zaion dekretu-proiektuaren helburua EAeko adimen ezinduei aho eta hortzetako laguntza, berezia eta berariazkoa, ematea da. Prestazioen estaldura zabalagoa da euskal osasun sistemak helduei oro har ematen diena baino.

Estalduraren zabalpen hau, adimen ezintasuneko biztanleriarentzat, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordearen aurrean Osasun eta Kontsumo Sailak 2011ko azaroan hartutako konpromisotik abiatzen da, eta kolektibo honen ezaugarrietan eta berariazko premietan oinarritzen da.

Ahoko eta hortzetako osasunak pertsonen osasunean eta ongizatean eta haien gizarte harremanetan eragina dauka, eta euskal osasun sistema publikoan osasunaren prebentzio eta sustapenaren ikuspegitik begiratzen zaio batez ere. Eremu horretan, gure osasun sistemak odontologiako arreta ematen du, sintomak bakarrik tratatzeko prestazio gisa (eskaeraren araberakoa), ahoko osasunerako hezkuntza programak egiten ditu, zenbait sektoretatik jarduten du hortzetako gaixotasunen kausetan eragiteko neurrien bitartez, eta Umeentzako Hortzetako Arreta Programa (UHLP) finkatu du. Programa hori 118/ 1990 Dekretuak arautzen du; dekretuak haurtzarotik aurrera jardunbide egokia sustatzen du, eta 7 eta 15 urte artekontzat hortzetako arretarako oinarrizko beharrianak asetzen ditu, ahoko osasun egokia sustatzeko asmoz

eta behin betiko hortzetan lesioen eragina murrizteko.

Adimen ezinduen kolektiboak aho eta hortzetako patologia gehiago izan ohi du. Askotan, adimen ezintasunari lotutako patologia eurak dira izaera odontologikoa izaten dutenak. Kolektibo honek izan ohi duen dieta eta hartu ohi dituzten sendagaiak ere kaltegarri izaten dira ahoko osasunean eta, oro har, adimen eta mugikortasun ezintasunen mugek gabeziak ekartzen dituzte hortzen higienean eta tratamenduen babesean.

17/12*i*
SENECA¹ txostena Katalunian egindako ikerketa lanaren emaitza da, adimen ezintasuna duten pertsonen beharrianak ezagutzeko eta zahartzaroan haien bizi-kalitatea hobetzeko prebentziozko eta laguntzazko politikak sortzeko egina. Txosten horrek azaltzen duenez, adimen ezintasuna daukaten pertsonak behar baino lehen zahartzen dira, bai euren ezintasunari lotutako arazoengatik, bai euren osasunean eragina duten gaixotasunetarako programarik ez daukatelako. Txosten horrek oso ondo azaltzen du adimen ezintasun arina edo moderatua duten pertsonen %90ak aho eta hortz higiene oso txarra dutela, ahoan arazoak dituztela eta arreta pertsonalizatua eta berezia behar dutela.

Adimen ezintasuna duten pertsonentzat aho eta hortz tratamendu zabalagoa ematea, EAEn *Umeentzako Hortzetako Arreta Programaren* estalduraren adina gauditutakoan, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak Legebiltzarrean hartutako konpromisoari dagokio, eta adimen ezintasuneko biztanleriak ahoko eta hortzetako osasunean eta ongizate orokorrean dituen premia bereziekin bat dator; bestela, umetan bakarrik jasoko lukete arreta hori.

Hala eta guztiz ere, gure gizartean badaude bestelako ezintasunak daukaten kolektiboak, adibidez gorputz edo mugikortasuneko ezintasunak dituztenak, eta horietako batzuek zailtasunak sortzen dituzte pertsona hauek beren burua zaintzerakoan, hortzen higienean, eta aho eta hortz tratamenduen lankidetzan. Arazo horiek adimen ezintasuna duten pertsonen arazoen antzekoak dira eta, gure osasun sistemaren balioen barruan dauden berdintasun printzipioak

1 SENECA txostena, Zahartzea eta Adimen Ezintasuna Katalunian 2000-2008.
APPS, Adimen Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Kataluniar Federazioa.

ikusita, arazo horiek ere laguntza berezia, zabaldua eta berezia behar lezakete.

Ekimenari buruzko gogoeta orokor hauez gain, batzorde honek uste du dekretu-proiektuaren zenbait alderdiri buruzko ohar hauek egitea egokia dela:

- Komenigarria litzateke testuan dekretu-proiektuan proposatzen diren jarduketetarako eskumen-gaikuntza aipatzea. Hori *Euskadiko Osasun Antolamenduko 8/1997 Legean* zehazten da. Lege horren 2. artikuluan azaltzen denez, “*Eusko Jaurlaritzak, Euskadin, osasun prestazioen katalogoa handitu ahal du*”. Uste dugu hori dekretuaren zioen azalpenean kokatu ahal dela.
- Uste dugu komenigarria dela adimen ezintasunen premia bereziak artatzeko aurreikusten den odontologiako **laguntza-dispositiboa** gehiago zehaztea, hain zuzen ere, gaixotasunen izaera eta haien premien izaera berezia kontuan izanik.

17/12j

6. artikuluan beren-beregi, baina orokorrean, aipatzen dira *Osakidetzaren osasun zerbitzuetako antolakundeetan kokatutako langileak eta bitarteko materialak, antolaketa-egokitzapenak egitea, eta dotazio egokia egin beharra*. Zenbait kontu zehaztu gabe geratzen dira, adibidez, oinarritzko hortz arreta berezi horren kokapena (anbulatorioan edota ospitalean), arreta hori emango duten osasuneko langileak (erreferentziako haginlaria eta anestesistak) eta UHLPren prestazioekin zerikusia duten langileekiko harremana. Ezintasun askotan, mugimendu inboluntarioak gertatzen dira gorputzean. Mugimendu horiek arriskutsuak dira gaixoarentzat eta osasuneko langileentzat. Horregatik, beharrezkoak dira anestesia, anestesistak eta ospitale-ingurunea. Hori, ordea, ez dago argi dekretu-proiektuaren eremuan sartzen den edo ez. Arrazoi berarengatik, kontsulta barruko erradiografiak egitea zaila litzateke, eta argitu beharko litzateke ortopantomografiak dekretu-proiektuaren prestazioetan sartuko diren edo ez.

Gai horiek argitzea proposatzen dugu, 6. artikuluan 3. paragrafo bat sartuz: “**Osakidetzaren barruan Odontologiako tratamendu berezien unitateak sortuko dira, adimen bereziko pertsonen ahoko eta**

hortzetako arreta bermatzeko eta azkartzeko”.

Odontologiako tratamendu bereziko unitateak sortzea litzateke asmoa, helduei oro har ematen zaizkien prestazioak eskaintzeko asmoz. Haietan, lehen arretako haginlariak baloratuko luke gaixoak sedazioa edo anestesia behar duen, esplorazioak eta tratamenduak zehaztuko lituzke, eta gaixo horiei haginlarien arreta ospitalean emateko eskatuko luke.

- Jaurlaritzari eskatzen diogu gogoeta egin dezala apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuak (EAEko hurrei hortzetako laguntza emateari buruzkoa, UHLParen sortzailea) eta aurkeztu zaigun dekretu-proiektuak arautzen dutena hobeto artikulatzeari buruz. Izan ere, aipatutako dekretuak eta dekretu-proiektu honek arauketa-eremu komunak eta osagarriak dauzkate. Horrela, 7 eta 15 urte arteko adimen ezinduentzako prebentziozko, konponketako edo ebakuntzako hortz arretarako kokapenik onenari buruzko auzia sortu da. Arreta hori UHLP sortu zuen dekretuan ageri da gaur egun. Adimen ezindu helduentzat ezartzen denarekin modu bateratuan arautu ahal da. Nolanahi ere, 118/1990 Dekretua irizpen honen xede den dekretu-proiektuaren antolamendu juridikoaren agerpenari egokitzea aztertu beharko litzateke.

Azkenik, esan behar dugu hitzaurrearen amaieran (dekretu-proiektua egiten eta izapidetzen parte hartu duten organoak aipatzen denean) EGABen aipamenik ez dela egin, nahiz eta derrigorrez esku hartu behar duen, beraren Sorrera eta Arauketako Legearen 3.1.b) artikulua dela bide. Horrenbestez, uste dugu beharrezkoa dela dekretu-proiektuaren hitzaurrearen azken paragrafoan “*Euskal Ekonomi eta Gizarte Gaietako Kontseiluari entzun ondoren*” idatzi behar dela. Honela geratuko litzateke beraz:

Hori dela bide, Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman ondoren, eta Euskal Ekonomi eta Gizarte Gaietako Kontseiluari entzun ondoren, eta Osasun eta Kontsumo sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak ... egunean egindako batzarrean eztabaidatu eta onetsi ondoren.

IV.- ONDORIOA

Euskal EGABek uste du egokia dela kontsultatu den dekretu-proiektua izapidetzea, irizpen honetan egin diren oharrekin.

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean.

O.E. Lehendakaria
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos *17/12j*



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Via 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1600-12